



ikastolak



SAN FERMIN IKASTOLA ZIZUR



Urte asko daramatza San Fermin ikastolak osasunerako eta ingurumenaren babeserako hezkuntza lanean. Horren adibide ditugu, besteak beste, erizaintza zerbitzua, energia alternatiboa lortzeko eguzki-panelak edo, azken urteetan, jantokitik jaki osasungarri eta ekologikoak eskaintzeko egiten den ahalegina.

Gaur egun, ikastolako profesional asko lanean ari dira alderdi guztiak bilduko dituen proiektu integral batean, baina aurretik ere, eta prebentzioan indar berezia jarritz, lan handia egin da beti bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko. Aipagarri dira, esaterako, hamaiketako osasuntsuak egiteko bultzatutako dinamika, edo ikastetxeak, oro har, ariketa fisikoaren garrantzia lantzeko egiten duen ezfertsua, bai Gorputz Hezkuntzako ikasgaiari, baina baita patio garaian egiten diren jardueretan edo irteeretan ere.

Beste lan ildo garrantzitsu bat Bide Segurtasunerako Hezkuntza programa dugu, Foruzaingoak Lehen Hezkuntzako ikasleei eskainia. Droga-mendekotasunari aurrea hartzeko alorrean, berriz, hainbat jarduerari egin dira zuzendaritza eta tutoreen elkarlanari esker eta, nabarmendu beharra dago, Ikastola Drogarik gabeko ikastetxea proiektuan sartu dela, droga-mendekotasunaren aurkako Foru Planarekin eta Ilundain Fundazioarekin batera.

DESFIBRILADOREAK FINANTZATZEKO KANPAINA BEREZIA Bizkortze kardiobaskularraren inguruko prestakuntza eta sustapena dugu beste alor nabarmengarri bat. Ikastolako langile eta familiendako eskaintzen diren ikastaroez gain, gaia Bigarren Hezkuntzan bereziki lantzen da. Ikastolak, gainera, desfibriladore bat ere erosi du berriki, halako tresna bat gure bezala ikastetxe handi batean izateak zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen kontuan hartuz, eta gailuaren kostua ordaintzeko, eskumuturrekoak saltzeko kanpaina bat abiarazi da, dirua lortzeko eta, aldi berean, osasunaren eta bihotzeko arazoaren inguruko kontzientzia indartzeko. San Fermin Ikastolan, "kardiobabestuek" gaudela esan dezakegu beraz.

OSASUNA ETA JASANGARRITASUNA, JANTOKITIK ABIATUTA Bestalde, sukaldako langileek egunero eta

Ikastola, osasuntsu eta jasangarri

EGUZKI PANELAK, JANGELA OSASUNTSUA, ERIZAINNTZA ZERBITZUA... HAINBAT EKIMEN MARTXAN DITUGU IKASTOLAN

Testua eta irudia San Fermin Ikastola



Ikastolako desfibriladorea, gure jangela eta Bide Segurtasunerako Hezkuntza programaren tailerra.

zuzenean prestatzen dituzte gure ikasleek jaten dituzten menuak, eta badira jada hiru ikasturte menuetan jatorri ekologikoko jakiak erabiltzen hasi zirela. Horretarako, osasun irizpideak hartzen ditugu ardatz, baina baita ere jasangarri-

Ikastolan ahalegin berezia egiten ari gara ikasleek elikadura ohitura osasuntsuak barneratu ditzaten

tasunarena, gure inguru hurbilarekin konpromiso bat hartuz. Gainera, elikadura osasunaren oinarritzko euskarrietako bat denez, ikastolan ahalegin berezia egiten ari da umeei horren erakargarriak egiten ez zaizkien jaki ekologiko eta


integralak jaten ikas dezaten.

ORGANIKOETARAKO EDUKIONTZIA Baina, jasangarritasunari begira, funtsezkoa da sortzen ditugun hondakinei erreparatzea eta hauek ongi kudeatzea. Ikastolan hondakinak bereizten ditugu, batez ere papera, eta gai organikoetarako edukiontzia jarri genun orain zenbait urte, Amalurra taldeak sustaturik. Senide eta langile batzuek osaturiko talde horrek ingurumen-jasangarritasunerako plan integral bat bideratzen ari da. Zentzu honekin, gurasoak eta familiak birziklatzera animatzen ditugu, gure seme-alaben planeta jasangarriagoa eta iraunkorragoa izan dadin, funtsezkoa delako geure etxeetan ere egoki kudeatzea hondakinak.

PRESTAKUNTZA TRINKOA MINDFULNESSEN Joan den irailean, Bigarren Hezkuntzako irakasle talde handi batek gaian trebatzeko ikastaro bat egin zuen Iciar Burgosekin, Ikastolako ama hori aholkularia baita mindfulnessen eta terapia sistematikoa. Prestakuntzaren helburua izan da irakasleek arreta osoan oinarrituriko zenbait teknika erabiltzen ikastea, osasuna eta ongizatea berreskuratzeko, norberaren kontzientzia hartzeko eta ikasleekin ongi moldatzeko.

Teknika hori modu jarraituan praktikatzeko lagungarria da emozioak hobeki kontrolatzeko eta norberaren oreka aurkitzeko, eta, hortaz, Mindfulnessen trebakuntzak onura ugari ekartzen ditu hezkuntza esparruan. Izan ere, prestakuntza egin duten irakasleek hasiak dira jada teknika horiek ikasgelan baliatzen, batez ere ikasleendako estresagarriak diren garaietan, esate baterako, azterketasasoiak.

Bestetik, irailaren bukaeran, partaidetza-batzordeak gurasoendako beste ikastaro bat egitea proposatu zuen. Proposamenak, inondik ere, arrakasta handia izan zuen berrogeita hamar gurasok eman baitzuten izena. Parte-hartzaileak bi taldetan banatu ziren lau saioko prestakuntza interesgarri hori jasotzeko. Batzordeak jakinarazi digunez, "partaideak jakintza arlo berri batean barneratu dira eta tresna praktikoa egokiak eskuratu dituzte hemengoaz eta oraingoaz kontzientzia hartzeko beren eguneroan. Hagitz aberasgarria izan da eta lan giro paregabea sortu da". ●




LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zer saltzen zuten ikastolan desfibriladorea finantzatzeko?
2. Nola deitzen da ingurumeneko gurasoen taldea?
3. Zeren inguruko ikastaro trinkoa jaso zuten irailean? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Unax Monreal (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Saioa Lizarreta (Erratzuko Eskola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Maddalen Oiarbide (Iñigo Aritza Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.